

**POLONIA.** Lider komunista ohia epaitzeko prozesua 1996an hasi arren, bost urte behar izan dira auzia izan arte

# Jaruzelski jenerala epaituko dute Gdanskeko sarraskiak agintzeagatik

Armadak eta Poliziak olagintzako berrogeita lau langile manifestari hil zituzten 1970ean



EGUNKARIA

Jaruzelski jenerala —eskuinean— 1981. urtean boterea hartu eta gutxira.

Agentziak | **VARSOVIA**

Wojciech Jaruzelski, Poloniako lider komunista ohia, gaurtik hasita epaituko dute Varsovia-ko auzitegi kriminalaren aurrean, 1970. urtean Gdanskeko olagintza lekuetan gertatu ziren sarraskiak agintzean izandako ustezko erantzukizunagatik. Urte hartan, Jaruzelski Defentsa ministro zelarik, Armadak

tiro egin zuen kontsumo prezioen garestitzearen aurka protestan ziharduten langileen aurka. Haren ondorioz, manifestatzen ari ziren 44 langilek bizia galdu zuten eta ehunka egon ziren zaurituta.

Gertaera larri hauen erantzukizunak argitzearen 1996. urtean ireki zen auzia saihestea lortu zuen Jaruzelskik, osasun arazoak zituela argudiatuta.

Ezen, presidente ohia Gdanske bertan epaitzeko asmoa bazen, baina Jaruzelskik azaldu zuen bere osasun kaskarragatik ez zuela Varsoviako hiriburua eta Baltikoko portuaren artean dagoen 350 kilometroko aldira egiten ahal. Gauzak horrela, Poloniako justiziak ebatzi zuen jenerala Varsovia epaituko zutela, baina sumarioaren lekualdatze hori denbora asko

kosta izan zen. Gainera, Jaruzelskiren defentsak borroka luzea egin zuen buruzagi ohia auzitegi arruntetatik kanpo epaitua izatea lortzeko xedez.

Ezen, 1981eko abenduan, botereaz indarrez jabetu ostean, Jaruzelski Poloniako presidentete bilakatu zela azpimarratuta, defentsak iritzi zion Estatu auzitegiaren aurrean zuela epaituta egon behar. Hori gertatu balitz,

AMNISTIA

## 1996ko amnistia legea

Komunista ohiek gehiengo zeukatelarik Poloniako Parlamentuan, amnistia lege bat bozkatu zuten 1996. urtean. Honi esker, Wojciech Jaruzelski ez zuten epaitu 1981ean botereaz indarrez jabetu eta gero agindu zuen lege martzialagatik eta horrek izan zituen eragin itzelengatik.

Urte hartan, Solidarnosc langile sindikatu libreak Gdanskeko eta Silesiako olagintza lekuetan bereziki bultzatzen zituen lanuzteei gogor egin nahi izan zien Jaruzelskik. Armadaren eta Poliziaren ekitaldien ondorioz, meazuloetako hainbat langilek bizia galdu zuten. Poliziaburu zenbaiten aurka iaz izan zen auzi denboran, Jaruzelski, haatik, damutu egin zen.

Jaruzelskik zigortze moral bat besterik ez zuen arriskatuko. Auzitegi arrunt batean epaituta egonez gero, aldiz, bizi osorako espetxe zigorraren arriskupean dago estatuburu ohia. Poloniako Auzitegi Gorenak ebatzi zuen, azkenean, Jaruzelskik epaitegi arrunt baten aurrean azaldu beharko zuela.

## Herriak ala historiak epaitua

Gaur egun 77 urte dituen jeneralaren epaiketari buruz bi iritzi kontrajarri azaltzen dira. Agintean dagoen Solidarnosc koalizioaren aburuz, Jaruzelskik herritarrek epaitua izan behar du kriminal baten gisara. Oposizioan dauden, komunista ohien iritzi, aldiz, historiak du epaituko zer izan zen jeneralaren jardura. «Komunisten krimenak epaitzeko azken aukeretatik bat da eta erregimen horretako agintariek kondenatuta izan behar dute egin zuten minagatik, nazi kriminalen kasuan gertatu zen legez» aditzera eman du Mirosław Styczen, agintean dagoen koalizio gobernu eskuindarreko buruzagiak.

«Jaruzelski kasua historia ikertzaileei utzi behar zaie», iritzi zion SLD Ezkerreko Aliantza Demokratikoko eledun batek. «Gertakari haiek testuinguru erabat ezberdinean jazo ziren eta gaur egungo auzitegi batek ez ditzake epaitu». SDLko kideak «gizon zahar eta gaixotzat» jo zuen Jaruzelski, eta ez lukeela hertsatuta egon behar gaineratu zuen.

Jaruzelskik berak, aldiz, «erantzukizun morala» aitortzen du. «Zentzu moralean, errudun sentitzen naiz, alde batetik, Defentsa ministro izanagatik eta aginte goreneko kide izateagatik, bestalde» adierazi du.

**KORSIKA.** Frantziako Legebiltzarrak gaurtik aurrera eztabaidatuko du azken aldikoz Korsikaren aldaketa instituzionaleko legea

Agentziak | **AIACCIU**

Orain arte Unita koalizioaren barne zeuden Korsikako lau alderdi nazionalistak Indipendenzia alderdi berria sortzea erabaki zuten, joan den igandean Cortin egindako batzar nagusian. A Cuncolta Indipendentista, Corsica Viva, U Collectivu Naziunale eta Associu per a Suvranita alderdietako 300 kidek egitura berean elkartzea onartu zuten bilera horretan. Aurretik, haatik, lau alderdi hauek euren desegitea ebatzi zuten iragan asteartean, Indipendenzia alderdi berria sortzearen ezinbesteko lehen urrats gisa.

«Korsikarrek euren adurra eskuetan hartu behar dute gaur

## Indipendenza alderdi berriak burujabetza nahi du bultzatu, «Estatu moderno bat eraikitze»

egun eta ozenki aldarrikatu independentzia dela estatu moderno bat eraikitze modu bakarra», azaldu zuen Francesco Sargentini Indipendenzia alderdiko eledun batek. «Gure apustu hau, korsikar populuaren borroka historikoaren ildotik doa, autodeterminazioaren bitartez, gure burujabetza osoa berreskuratzeko helburuan» gaineratu zuen.

Hogei bat kidek osatutako junta batek zuzenduko duen alderdi abertzale berriak «lanpostuak lehenetsuz korsikarren eskuetan uztea, kulturaren garrantza eta ingurumenaren ba-

bestea» finkatu ditu ardatz nagusien artean. Borroka klandestinoari dagokionez, jokaera hau ez duela salatzen azpimarratu du Indipendenzak, eta «izateko arrazoiak ulertzen» dituela zehaztu du.

Indipendenzaren sorrera gertatu da Korsikako bilakaera politiko eta instituzionalaz Frantziako Legebiltzarrean egingo den eztabaidaren saioa hasi baino bi egun aurretik. Ezen, gaurtik aurrera da azken azterketa baterako aurkeztuko Palais Bourbonen Daniel Vaillant Barne ministroaren zerbitzuek moldatau egin duten legea. Testu

honek, autonomia mugatu baten eskumenak emango lizkioke Korsikari, ekonomia alorreko eta gizarte kudeaketarako kompetentzia batzuk Korsikako Lurralde Asanblearen eskuetan ezarrita. Gainera, legeak finkatzen zuen korsikar hizkuntza derrigorrez irakatsia izango dela uharteko ama-eskoletan eta lehen mailan, gurasoak kontra ez badaude.

## Frantziako biltzarkideen jokaeraz kezkatuta

Frantziako diputatuek Vaillanten testuari ekar liezazkioketen aldaketak aztertze xedez, da-

torren maiatzaren 22an bilduko dira Korsikako abertzale mugimenduak. Oraindik, haatik, euren kezka azaldu dituzte Frantziako biltzarkideek, euren zuzenketen bitartez, ez ote dutenez Jospinen gobernuaren legea bere eduki handienaz hustuko. Nazionalistak beldur dira, esaterako, Frantziako diputatuek atzera botako duten korsikar hizkuntza derrigorrez irakatsia izatea Korsikako eskoletan. «Korsikako hautetsien eta Frantziako Gobernuaren artean hitzartutako akordioa bertan behera utzia geratzen bada, ondorioak berehala nabaritutako lirake» ohartarazi du dagoeneko Jean-Guy Talamoni Corsica Nazione taldeko hautesiak.